

Inklusioari eta dibertsitate funtzionalari buruz

MINTZATZEN DIREN ISTORIOAK

Eginaren Eginez

1. ANTOLAMENDUA

«Mintzatzen diren istorioak» Arabako desgaitasun fisikoa duten pertsonen Eginaren Eginez elkarteak bultzatutako eta Gasteizko Udalak diruz lagundutako proiektua da.

2. LEHIAKETAREN HELBURUA

Gazteen artean dibertsitate funtzionalaren eta gizarte-inklusioaren inguruan parte-hartze aktibo, sortzaile eta gogoetatsua sustatzea da lehiaketaren helburua, dibertsitate funtzionalen bat —bereziki mugikortasun urria— duen pertsonaia bat gutxienez duten kontakizun laburren bidez.

3. HARTZAILEAK

Lehiaketa Gasteizen bizi diren 14 eta 30 urte bitarteko gazteei zuzenduta dago, bi kategoria hauetan banatuta:

- **Gazteen I. kategoria, 14 eta 17 urte bitartekoek osatua** (2008 eta 2011 artean —biak barne— jaiotakoek)
- **Gazteen II. kategoria, 18 eta 30 urte bitartekoek osatua** (1995 eta 2007 artean —biak barne— jaiotakoek)

4. KONTAKIZUNEN BETEKIZUNAK

Kontakizunek baldintza hauek bete behar dituzte:

- Gehieneko luzera: 500 hitz
- Hizkuntza: gaztelania edo euskara (hizkuntza bakarra onartuko da partaide bakoitzeko)

Testuaren formatua:

- Letra: Arial, 12 puntukoa
- Lerroarte: 1,5
- Dokumentu-mota: PDF edo Word
- Gaia: librea, baina dibertsitate funtzionala —bereziki mugikortasun urria— duen pertsonaia bat gutxienez izan behar du kontakizunak.
- Originaltasuna: kontakizunak argitaragabea izan behar du, egiletza propiokoa, beste lehiaketa batzuetan saritu edo aurkeztu gabea, eta ez da adimen artifiziala (AA) erabiliz egingo, ez osorik, ez partzialki.



5. KONTAKIZUNEN AURKEZPENA

Kontakizunak posta elektronikoz bidaliko dira helbide honetara:

info@eginez.org

Mezuaren gaia: **Mintzatzen diren istorioak lehiaketa - I./II. kategoria - Parte-hartzailearen izena**

Mezuak hauek bildu behar ditu:

- Kontakizunaren fitxategia —izenburua dokumentuan jasoko da—
- Izen-abizenak
- Jaiotze-urtea eta adina
- Helbide osoa (Gasteizkoa)
- Harremanetarako telefonoa eta helbide elektronikoa



6. AURKEZTEKO EPEA

Kontakizunak aurkezteko epea **2025eko urriaren 16an hasi eta azaroaren 16ko 23:59an** amaituko da.

7. EPAIMAHAIA ETA BALORAZIO-IRIZPIDEAK

Epaimahaia Eginaren Egin ez elkarte zuzendaritza-batzordeak izendatuko du, eta elkarte kide diren eta desgaitasuna duten bi pertsonak hartuko dute parte gutxienez.






Gainera, **Marta Martínez** ere epaimahaikide izango da, lehiaketako laguntzailea den Mara-Mara Liburuak liburu-dendaren ordezkaritzan.

Hauek izango dira ebaluatzeko irizpideak:

- Literatura-kalitatea eta originaltasuna
- Dibertsitate funtzionala estereotiporik gabe erabiltzea
- Berdintasun-, enpatia- eta herritartasun-balioak transmititzea



8. ERABAKIA ETA ARGITALPENA

Epaimahaiaren erabakia **2025eko abenduaren 3an jakinaraziko da, Desgaitasuna duten Pertsonen Nazioarteko Egunean, alegia.**

Kontakizun finalistak eta irabazleak doako **argitalpen digital** batean sartuko dira, zeina Eginaren Eginez elkartearen eta erakunde laguntzaileen kanal digitalen bidez zabalduko baita.

9. SARIAK

Bi kategorietan emango dira sariak.

- Lehen saria: Gasteizko **Mara-Mara Liburuak liburu-dendan liburuak erosteko 150 euroko bonua**, eta kontakizuna lehiaketaren doako argitalpen digitalean sartzea.
- Bigarren saria: kontakizuna doako **argitalpen digitalean** sartzea, irabazten duten gainerakoekin batera.



10. HIZKUNTZA OFIZIALAK

Kontakizunak **gaztelaniaz edo euskaraz** aurkeztu ahal izango dira.

11. OINARRIAK ONARTZEA

Lehiaketan parte hartzeak oinarri hauek guztiak onartzea dakar. Oinarriotan jaso gabeko alderdi guztiak antolatzaileek ebatziko dituzte.

12. LANEN JABETZA

Lehiaketara aurkeztutako lanen jabetza egileena izango da une oro. Dena den, Eginaren Eginez elkarrekin euskarri fisiko zein digitaletan argitaratu eta/edo errepro-



duzitzeko eskubidea izango du, egileen izena adierazita, baimen gehigarririk eskatu eta konpentsazio ekonomikorik eman beharrik gabe.



La propiedad de las obras presentadas al concurso será en todo momento de sus autores/as. No obstante, la Asociación Eginaren Eginez se reserva el derecho a publicarlas y/o reproducirlas, tanto en soportes físicos como digitales, nombrando siempre a sus autores/as, sin necesidad de autorización adicional ni compensación económica.



13. PARTE-HARTZAILEEN BERMEAK ETA ERANTZUKIZUNAK

Hirugarrenen eskubideak errespetatzeko eta lehiaketan zehar egoera irregularrak saihesteko, hau ezartzen da:

Parte-hartzaileak izango dira kontakizunen edukiaren legezko erantzule bakarrak.

Eginaren Eginez elkarteak ez du legezko erantzukizunik izango aurkeztutako lanen eta horien edukiaren gainean.



Kontakizunek guztiz originalak izan beharko dute, eta ezin izango zaio inolako erantzukizunik egotzi Eginaren Eginez elkarteari, ez zuzenean, ez subsidiarioki.

Eginaren Eginez elkarteak lehiaketatik kanpo utzi ahal izango ditu kontakizunak, baldin eta baldintzak —luzera eta gaia— betetzen ez badituzte, pertsonen duintasunari kalte egiten badiote edo oinarritzko eskubideak urratzen badituzte.

